

Kultur Agenda

Martxoan
Apirila
Agoitz
2021

📞 948 336 690

✉ cultura@aoiz.es

f Facebooken gaude



www.aoiz.es


Agoizko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Aoiz


Nafarroako
Gobernua


NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

martxoa

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

apirila

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Martxoa

Emakumearen Eguna Ospatzeko Ekitaldiak

- 5a Aurkezpena.** Zaindu zure espazioa. Autodefentsa Feministarako Gida
- 5-19 Erakusketa.** Udaberri berri bat. Agoizko argazkilariak
- 6a Tailerra.** "Zoru pelbikoa" indartzeko tailerra
- 6a Antzerkia.** ¿Qué nos pasa a las mujeres?
- 8a Elkarretaratzea.** Emakumeen Nazioarteko Eguna
- 12a Libururaren aurkezpena.** Nada es diferente después de todo.
Txaro Begué
- 14a Zine Foruma.** El orden divino.
- 21a Zine Dokumentala.** Woman.
- 23, 25 Tailerra.** "Nire egunerokoa" idazketa sortzaileko tailerra
- 25, 26 Antzerkia.** Salto a Escena-Oholtzara Salto
- 28a Musika.** Jubilate deo Dan Forrest. Coro in Tempore
- Agoitz Hiria Narrazio Laburraren XIV. Lehiaketa. 03/26a arte

Apirila

- 10a Libururaren aurkezpena.** Muerte a la Reina de Navarra.
Pello Guerra
- 18a Antzerkia.** Viejos mundos nuevos. Ados Teatroa
- 23, 26 Liburua, protagonista.** Topaketak idazleekin



Emakumearen Eguna Ospatzeko Ekitaldiak

AURKEZPENA



5 martxoa | ostirala | 18:00
Kultur Etxea (Areto Nagusia)

ZAINDU ZURE ESPAZIOA.
AUTODEFENTSA FEMINISTARAKO GIDA

Hizlaria: Alicia Giménez García (Acción contra la trata).

TAILERRA



6 martxoa | larunbata | Polikiroldegia
Bi saio: 10:00-11:30 / 11:30-13:00

“ZORU PELBIKOA” INDARTZEKO TAILERRA

Emailea: Edurne Indurain
(Uroginekologian eta fisiosexologian aditua).

Tailer praktiko-teorikoa. Bertan, hainbat gai landuko dira: zoru pelbiko ahularen kausak, patologia komunak, hilekoaren faseak, prebentzioa eta zainketak, besteak beste. Eta hainbat praktika: nola ikasi zure zoru pelbikoa aurkitzen, nola uzkurtu eta lasaitu.

Izen-emateak: Udaletxean (948 33 60 05) 02/15etik 03/4ra.

Saio bakoitzeko edukiera, 12 emakume.

Arropa eroso eta koltxoneta eraman behar da.

ANTZERKIA



6 martxoa | larunbata | 18:00
Kultur Etxea. 6€

¿QUÉ NOS PASA A LAS MUJERES?

Hartzailea: Gazteak-helduak
(60´)

Lau emakumek taberna batera joateko deialdia jaso dute. Deialdia bosgarren emakume batek egin du, Hera deitzen dutena. Antzezlanaren aurrera doan heinean, Heraren eta topaketaren misterioa handituz doaz. Edarien, musikaren eta, nola ez, WhatsAppsen artean, lau emakumeek ongi gordetako sekretuak argitzen dituzte: guztiek dute iragan komun bat. Bakoitzak ezagutzen du bestearen sekreturen bat. Batzuetan mingarria den prozesu batean, baina baita dibertigarria eta beti askatzailea ere, gizonekin, maitasunarekin, lanarekin eta bizitzarekin dituzten harremanak gogoratzen dituzte. Eta horrela beren frustrazioak partekatzen dituzte eta beren itxaropenak irudikatzen. Topaketaren misterioa argitu da azkenean. Maitasun harreman “toxikoak” jorratzen dituen antzerki soziala da.

Emakumearen Eguna Ospatzeko Ekitaldiak

ELKARRETARATZEA



8 martxoa | astelehena | 19:00
Udaletxe aurrean

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Musika, Ane eta Luarrekin.

LIBURURAREN AURKEZPENA



12 martxoa | ostirala | 18:00
Aurelio León Aretoa | Sarrera librea

**NADA ES DIFERENTE DESPUÉS DE TODO
TXARO BEGUÉ**

Beguék erromanizazioaren garaira bidaiatzea proposatzen du, gure aroko lehen urteetara hain zuzen ere, guraso, senar edo ugazabarekin batera lurralde ezezagunetara, sarritan etsai, joatera behartuta egon ziren emakumeen eskutik. Leku haietan harrera egin zieten eta elkarrekin bizi izan ziren emakumeen eskutik egindako bidaia ere bada. Beguék emakume xalo eta bakunak ikusarazi nahi ditu, erromatarrak eta baskoniarrak, salduak, esklabizatuak eta sexualki erabiliak, historian identitaterik izan ez zuen kolektibo sozial bat izan zirenak. "Bizirauteko borrokatu zuten eta familiak eta herriak mantendu zituzten, euren nortasuna eta duintasuna defendatu zuten", azpimarratzen du egileak.

ZINE FORUMA



14 martxoa | igandea | 18:00
Kultur Etxea | Sarrera librea

EL ORDEN DIVINO

Aurkezpena eta eztabaida Ruth Iturbiderekin.

actos conmemorativos
**DÍA DE LA
EMAKUME**

Emakumearen Eguna Ospatzeko Ekitaldiak

ZINE DOKUMENTALA



21 martxoa | igandea | 18:00
Kultur Etxea | 2€

WOMAN

Ekoizetxea: KANAKI FILMS

Ekoizlea: Amaia Remírez García

Zuzendaria: Raúl de la Fuente Calle

Mozambiken, Josina Machel lehen presidentearen alabaren kasuak erakusten du genero-indarkeriak ez dituela gizarte mailak bereizten. Beste emakume batzuek egunero pairatzen dute izua, defendatzeko baliabiderik gabe. Generoak jaiotzatik definitzen ditu; gizarteak menderatu egin nahi ditu; matxismoak hil egiten ditu.

TAILERRA

23.25 martxoa | asteartea - osteguna
10:00-11:30 | Kultur Etxea | 2€



**“NIRE EGUNEROKOA” IDAZKETA
SORTZAILEKO TAILERRA**

Emaila / Izen-emateak: Karekin Kultura (664 388 696)

60 urtetik gorako emakumeei zuzendua. Gehienez, 10.

Antolatzailea: Agoizko Udaleko Ongizate Arloa.

ERAKUSKETA



5-19 martxoa. Kultur
Etxeko pasabidea

**UDABERRI BERRI BAT
AGOIZKO ARGAZKILARIAK**

Bart gauean amets egin nuen, etsita, basorantz zihoala.

Inaugurazioa: martxoak 5, ostirala, 19:00.



Activos del **ADIZ.AGOITZ**
MUJER 2021
AREN EGUNA
ospatzeko ekitaldiak

 **Estatalariako Gobernua**
Gobierno de Navarra
Gubarnamenduko erakundeak eta erakundeak



Ayuntamiento de Aoiz
Agoizko Udala

Área de Cultura
Kultur Arloa

Área de Igualdad
Berdintasun Arloa

Área de Bienestar Social
Gizarte-Ongizate Arloa

Musika

JUBILATE DEO DAN FORREST CORO IN TEMPORE



28 martxoa
igandea

19:00 Eliza. Sarrera librea



Zuzendaria: Carlos Etxeberria

Sopranoa: Marta Huarte

Mezzosopranoa: Nerea Berraondo

Coro in Tempore Coral San José Abesbatzak 2016an erregistratutako marka berria da. 1955ean sortutako abesbatza honek curriculum luzea du. Nafarroan egindako emanaldiez gain, estatu mailan ere hainbat lekutan abesten aritu da. Iruñeko Udalak zein Nafarroako Gobernuak antolatzen dituzten musika zikloetan parte hartu ohi du abesbatzak.

Jubilate Deo kultura eta adierazpen musikal anitzetan oinarritutako eta egileak bere ukitua erantsi dion lana da. Bizitzaren aldeko omenaldi unibertsala da, eta emozio, ospakizun eta festa sentimenduak transmititzen ditu; lan alai eta oparoa, baina baita gogoetatsua ere.

Instrumentu talde bat abesbatzari laguntzen dio hainbat formatu hartuz, interpretatu beharreko programaren arabera: ganbera-orkestra eta/edo seikote/septeto instrumentala.

Liburua, protagonista

AGOITZ HIRIA NARRAZIO LABURRAREN XIV. LEHIAKETA



Presentación: 2021eko martxoaren 26a arte.

- San Migel LHI eta DBHI-ko ikasleak, ikastetxe-ko administrazio bulegoetan.

- Agoitzen ikasten ez duten ikasleak, cultura@aoiz.es. helbidera igorritz.

+ info: Euskara Zerbitzuan / www.agoitz.eus webgunean

TOPAKETAK IDAZLEEKIN

INÉS BENGEOA - MIKEL BELATZ

AHOZKO NARRAZIO SAIOA



23.26 apirila
ostirala eta astelehena
Eskola ordutegian. **Kultur Etxea**



San Migel LH Ikastetxe eta DBH Institutuko ikasleek zenbait literatur testu irakurri eta horietaz hitz egiteko aukera izanen dute.

Liburuaren aurkezpena

MUERTE A LA REINA DE NAVARRA PELLO GUERRA



10 apirila
larunbata
18:00 Kultur Etxea. Sarrera librea

Erljio-gerra, errepresioa Nafarroa Garaian, espioitza, gorteko intrigak eta asedioak erresuma zaharraren biziraupenari buruzko trama bizkor batean gurutzatu dira.

Antzerkia

SALTO A ESCENA OHOLTZARA SALTO



Aktibitate hau gure herriko gazteei zuzendutako arte eszenikoari buruzko proiektu zabalago baten parte da. Nafarroako Antzoki Sareak sorturikoa da, eta Nafarroako Kutxa-La Caixa fundazioak lagundutakoa da.

“DIVERSIDAD” ANTZERKI FORUMA



25.26 martxoa
ostegun / ostirala
Kultur Etxea
Eskola ordutegian

Publikoa: San Migel Ikastetxeko DBHko ikasleak.

VIEJOS MUNDOS NUEVOS TALDEA: ADOS TEATROA



18 apirila
igandea
19:00 Kultur Etxea. 6€

Publikoa: 14 urtetik gorakoak
Iraupena: 60 min.

“Viejos Mundos Nuevos” proiektuak zerkusia du edonork bere bizitza aldatzeko duen eskubidearekin, bazterketarik edo aurreiritzirik jasan gabe.

Itxuraz deskonektatuta dauden baina baztertzeko arriskua duten bi errealitate (bi mundu) kontrajartzetik sortzen da: landa inguruneak eta haietan bizi direnak, eta droga-mendekotasunetik errehabilitazioan dauden pertsonak.

Sarreraren salmenta:

• Interneten: **www.aoiz.es**

***Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin duenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketa zabalik dagoen ordutegian.

• Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago

(sarrerarik gelditzen bada)

*Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

Araurorokorrak:

• Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.

• Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartu eta.

• Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.

• 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.

• Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.

• Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.

• Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.

• Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.

• Programazioan zerbait gertatuz gero edo aldaketarik emanez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.

• Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.

• Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

COVID-19 SEGURTASUN-NEURRIAK

Agoizko Kultur Etxean, osasun-agintarien gomendioak eta gidak jarraituz, babes-neurriak ezarri ditugu gure zerbitzu eta instalazioetan, koronabirusarekiko esposizioaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen arabera.

1. Instalazioak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea

• Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren, erabiliko diren instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira.

• Erabiltzaileek erabil ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edo eta erabilera-maiztasunaren eta jende-fluxuen arabera.

• Gel-banagailu hidroalkoholikoak behar bezala seinaleztatuta jarriko dira.

2. Instalazioetara sarbideak eta zirkulazioak

• Publiko-fluxuak zuzentzeko behar diren bitartekoak artikulatuko dira. Sarrera mailakatua izango da, eta segurtasun-tarte egokiak gordeko dira.

• Txarteldegian zein aretoetarako sarbideetan segurtasun-distantzia mantentzen dela zainduko da, lurrean argi eta garbi identifika daitezkeen markak txertatuz.

3. Norberaren osasuna eta higiena

• Kultur Etxean eta antolatutako ikuskizunetan derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea.

• Gel-hidroalkoholikoa aretoaren sarreran egongo da.